

GOBERNU BATZARRA

2014. 12. 05

- Alkatea:** Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko abenduaren 5ean, goizeko 10:00etan
- Ibai Iriarte San Vicente** Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko:
- Zinegotziak:**
- Lore Agirre Zipitria**
Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez
- 1.- Aurreko akta onartzea.
 - 2.- Bedaioko Eliza ingurunea urbanizatzeke eta begiratoki bat sortzeko proiektua. Proiektua eta obra kontratazioa onartzea.
 - 3.- Bedaioko Abadetxe izeneko eraikinaren zimentazioa egonkortzeko egikaritze proiektua. Proiektua eta Obra kontratazioa onartzea.
 - 4.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Berrikuspen partzialerako aurrerapena eta aurrerapen horri dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoaren hasierako agiria tramitean jartzea.
 - 5.- Auzokonposta eta Auzokonposta egiten dutenei diru laguntza.
 - 6.- Tolosako Amartz Auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amartz Auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 6. ziurtagiria (FV1-1411-0034 faktura).
 - 7.- Eulen kontratua luzatzeko proposamena.
 - 8.- 38/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.
- Idazkaria:**
- Jose Luis Unanue Ugalde.**
- Kontuhartzaitzako Teknikaria:**
- Paulino Alonso Eraso.**

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko azaroaren 27an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Bedaioko Eliza ingurunea urbanizatzeko eta begiratoki bat sortzeko proiektua. Proiektua eta obra kontratazioa onartzea.

Bedaioko Eliza ingurunea urbanizatzeko eta begiratoki bat sortzeko Hirigintza batzordeak urriaren 9an egin zuen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Bedaioko eliza ingurunea urbanizatzeko eta begiratoki bat sortzeko obraren proiektua, Udaleko Bulego teknikoak idatzia, hain zuzen ere.

BIGARRENA.- Espedientea onartzea Bedaioko eliza ingurunea urbanizatzeko eta begiratoki bat sortzeko proiektuan jasotako obrak kontratatze publikitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez.

* Lizitazio-tipoa hau da: 70.542,18 euro.

* Prezio hori honelaxe dago banatuta: 58.299,32 euro balio estimatua eta 12.242,86 euro BEZa.

HIRUGARRENA.- 70.542,18 euroko gastua baliatzea dagokion partidaren kargura.

LAUGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren agiria aipameneko obrak kontratatze eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea dagozkion gonbidapenak eginez.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Hirigintza departamentuari.

3.- Bedaioko Abadetxe izeneko eraikinaren zimentazioa egonkortzeko egikaritze proiektua. Proiektua eta Obra kontratazioa onartzea.

Bi mil hamalauko urriaren 10ean Gobernu Batzarrak hartutako erabakiaren ondorioz, apiatutako obrak kontratatze prozedura irekia jarri zen martxan.

Bi mila hamalauko azaroaren 5ean, aurkeztutako bi proposamenak, ireki ziren, proposamen teknikoei zegozkienak, hain zuzen ere. Bietatik batek adierazten zuen ez zetorrela bat obra proiektuarekin eta besteak atzera egin zuen.

Gauzak horrela, bi mila hamalauko azaroaren 27an, Gobernu Batzarrak erabaki zuen "Bedaio Abadetxe etxeko sendotze eta lurreztatze" obrak kontratatzeke espedientea hutsik lagatzea.

Ikusirik obra pantailekin ezin dela egin lekurik ez dagoelako, oraingoan proiektua egokitu da mikropiloteak erabiliz.

Aurreko proiektuan eraikin barneko lanak mikropiloteak erabiliz egiten ziren, eta kanpotik egin beharrekoak pantaileekin. Aldaketaren ondoren, mikropiloteak erabiliko dira, zein barnean zein kanpoan, baina kanpoko mikropiloteak ez dira egongo lotuta barneko mikropiloteekin, eta, beraz, barnean kalte gutxiago sortuko da.

Sistema berri honen bideragarritasuna ziurtatzeko, horrelako obrak egiten dituzten enpresa espezializatu batekin kontrastatu da, eta ez dute ikusi arazorik horrela egiteko.

Beraz, hasierako proiektutuk zimentazio lanak egiteko modua aldatzen da, eta beste guztian proiektua berdina izango litzateke.

Obraren aurreproiektua 273.209,06 eurokoa (BEZ barne) da.

Bestalde, kontratazio pleguak ere aldatu egin dira, izan ere ikusirik obra egitea zaila dela, puntuazio gehiago eman zaio proposamen teknikoari, eta, ondorioz, gutxiago lizitazio prezioari.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Bedaioko Abadetxe etxeko sendotze eta lurreztatze obraren proiektua, Arkideiak, S.L.P., enpresak idatzia, hain zuzen ere.

BIGARRENA.- Espedientea onartzea Bedaioko Abadetxe etxeko sendotze eta lurreztatze obraren proiektuan jasotako obrak kontratatzeke prozedura irekiaren bitartez.

* Lizitazio-tipoa hau da: euro

* Prezio hori honelaxe dago banatuta: 273.209,36 euro balio estimatua eta 47.416,50 euro BEZa.

HIRUGARRENA.- 273.209,36 euroko gastua baliatzea dagokion partidaren kargura.

LAUGARRENA.- Aipatutako espedientea presakotzat jotzea, SPKLTBren 112. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

BOSGARRENA.- Onartzea klausula administratibo partikularren plegua, aipameneko obrak kontratatzeko.

SEIGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eta Kontratatzailearen profilean.

4.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspen partzialerako aurrerapena eta aurrerapen horri dagokion ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoaren hasierako agiria tramitean jartzea.

Ikusita Tolosako Hiri Antolamenduko Plan orokorrren berrikuspen partzialerako aurrerapena.

Visto el Avance de Revisión Parcial del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

Ikusita aurrerakin horri dagokion Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Ebaluazio Estrategikoaren Hasierako Agiria.

Visto el documento de Inicio del procedimiento de Evaluación Ambiental Estratégica correspondiente a dicho Avance.

Eta Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren legeko 90.3 eta 119 artikuluek eta urriaren 16ko 211/2012 dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzendenak, 8. artikulua xedatutakoaren arabera eta Hirigintza Batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorri, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Y de conformidad con lo previsto por el art. 90.3 y 119 de la Ley de Suelo y urbanismo del País Vasco, y el artículo 8 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, así como el informe emitido por parte de la comisión informativa de Urbanismo, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

ACUERDA

LEHENA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspen Partzialaren

PRIMERO.- Admitir a trámite el Avance de Revisión Parcial del Plan General

Aurrerapena tramitean jartzea.

de Ordenación Urbana de Tolosa,

BIGARRENA.- Dokumentua jendaurrean ipintzea bi hilabetez, iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko.

SEGUNDO.- Someter el documento a exposición pública por término de dos meses a fin de que puedan presentarse sugerencias y alternativas.

HIRUGARRENA.-Dokumentua udal mugakideetara bidaltzea ezagutu dezaten.

TERCERO.- Remitir el documento a los Ayuntamientos colindantes para su conocimiento.

LAUGARRENA.- Aurrerapenaren berri ematea Udal Plangintzako Aholku Batzordeari, irizpideen eta proposamenen nondik norakoak azaltzeko eta jendaurreko epean bere txostena egin dezan.

CUARTO.- Trasladar el Avance al Consejo Asesor de Planeamiento Municipal a fin de que conozca las directrices y propuestas contenidas en el mismo y emita el informe correspondiente en el período de información pública,

BOSGARRENA.- Hasiera ematea dokumentuaren ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari, eta horretarako aipatzen den hasierako agiria igortzea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arratza Sailari.

QUINTO.- Dar inicio al procedimiento de evaluación ambiental estratégico del documento y a tal fin remitir el documento de inicio al que se hace referencia al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial del Gobierno Vasco.

5.- Auzokonposta eta Auzokonposta egiten dutenei diru laguntza.

Gaia erabaki gabe geratu da.

6.- Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 6. ziuertagiria (FV1-1411-0034 faktura).

Udal Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez, 2014ko martxoaren 28an, Campezo Obras y Servicios, SA, enpresari esleitu zitzaion "Tolosako Amarotz Auzoan GI-2135 Errepidean Galtzada Aldatzeko eta Amarotz Auzoan berdeguneak sortzeko Urbanizazio Osagarrien Obrak egiteko" kontratua, 1.612.601,25 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain, bi mila eta hamalauko azaroaren 27an, 6. ziuertagiria aurkeztu du obra zuzendaritzak , 357.173,15 €-koa, BEZa barne.

Ziurtagiri hau aztertuta, eta kontuan izanik Udal teknikoak oniritzia eman diola, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Tolosako Amarotz auzoan GI-2135 errepidean galtzada aldatzeko eta Amarotz auzoan berdeguneak sortzeko urbanizazio osagarrien obrak egiteko kontratuaren 6. ziurtagiria (fak zkia: FV1-1411-0034, Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresarena), 357.173,15 €-koa (BEZa barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Campezo Obras y Servicios, S.A., enpresari eta Kontuhartzaitzari.

7.- Eulen kontratua luzatzeko proposamena.

Bi mila eta hamabiko abenduaren 18an esleitu zion Tolosako Udalak Eulen, S.A., enpresari Tolosako udal eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratua.

Kontratu hau bi urtetarako da; beraz, bi mila eta hamalauko abenduaren 31n bukatuko da.

Kontuan izanik, Pleguaren arabera, beste bi urteko luzapena egin daitekeela eta Udal Teknikariak egin duen txostenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatu kontratua beste bi urte luzatzea, 2015eko urtarrilaren 1etik hasita, 2016eko abenduaren 31arte.

BIGARRENA.- Plegu baldintzen arabera eta dagokionean prezioen zenbateko berriak aplikatzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Obra departamentuari eta Eulen, S.A., enpresari.

8.- Diru-laguntzak kanpoko ikasleei.-

Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondorengo koadroan Udal euskaltegitik kanpo ikasten aritutako ikasleei dirulaguntzak ematea:

IZEN ABIZENAK	DIRU LAGUNTZA
A. E. L.	147,00 euro
R.C.M.	125,00 euro
S.S.D.	90,00 euro

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuei.

9.- 38/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **38/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; **120.202,19** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **38/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

Etxez Etxeko zerbitzua: Ilarkiren azaroko faktura.-

Ilarki Elkargoarekin kontratua sinatu zen 2012ko abenduaren 28an, Etxez Etxeko zerbitzua emateko.

Hori horrela izanda, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ilarki Elkargoak aurkeztutako **68.370,59** euroko faktura onartzea, azaroko Etxez Etxeko zerbitzuko orduen kontzeptuan.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta Ilarki elkargoari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA